

Santurtzin, 2018ko abenduaren 2an

Olentzero maitea:


Gutun honen bitartez gogorarazi nahi dizut bizitza bakarra daukagula eta topera aprobetxatu behar dugula, nahiz eta batzuetan bidean izugarrizko oztopoak agertu. Inoiz galdetu al diozu zeure buruari ea nor zaren edo zer egiten duzun mundu honetan? Nire kasuan, ezin dizut ziurtasunez esan nor naizen, ez baitut neure burua ongi ezagutzen, baina inguruko ahotsek esaten duten moduan, mundu honetan ez dago lekurik niretzat. Tristura handia sentitzen dut kontu horiek entzuten ditudan bakoitzean, dena dela, ez dut uste nire iritziak axola duenik, alferrikako esfortzua egiten ari naiz ezinezko nahiak desiratzen.

Jaio nintzenean, nire gurasoek besoetan hartzen ninduten egunero eta orduak ematen nituen haien epeltasuna une orotan nabaritzen. Orain, ordea, bizimodu ezberdina daukadala uste dut, ez nago ziur, musika oso gustuko dudala dakidan gauza bakarra da. Musikak, nire barnean, zerbait adierazina sentiarazten dit. Ez al zaizu harrigarria iruditzen nota asko batzen direnean sortzen den melodia? Honi buruz hitz egiterakoan, kontu bat datorkit burura. Eskua poltsikoan sartuko dut ea nahi dudana aurkitzen dudan. Hara, nire harmonika kuttuna! Urte asko neramatzan haize-instrumentu hau ikusi gabe. Hala ere, ez dakit hau jotzeko gai izango naizen. Ahoan sartu dut astiro, baina sentsazio bitxia da. Notek sentsua hartzen dute poliki-poliki eta nire harridurarako, pertsonak hurbiltzen zaizkit. Bat-batean, hamar pertsona dauzkat inguruan. Nor ote da jende mordo hau?

Denbora pasa ahala, gero eta bakartiago sentitzen naiz pertsonak nire albotik urruntzen direlako. Nire gurasoak non dauden jakin banu, oihuka hasiko nintzaiekeen laguntza eske. Ez dit inork ulertzen eta gainera, egunak pasatzen diren heinean, nekatuago ikusten dut neure burua.

Kontatu dizudan guztia kontuan hartuta, gabon hautearako ez dut oparirik nahi. Agian, datorren urteko gabonetan ez ditut umeak kalean zoriontsu ikusiko edo ez dut kaleko argiak ikusteko aukerarik izango, baina oso mesedegarria izango litzateke, ezagutzen nauten pertsonekin hitz egingo bazenu eta ni ikustera etortzeko esango bazenie. Izan ere, maite nauten pertsonen nire begiak utzi nahi nizkieke, haiek ikus dezaten nola ikusten den egunero bizitza gurpildun aulki batetik edo ohe batetik.

Musu handi bat, nire nahiak betetzeko berandu ez izatea espero dut.

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.